

Xipri Anbeleside

APAIZA ETA IDAZLEA


Aupa gu eta gutarrak!

Aupa gu eta gutarrak! Bai, irabazi dugul! Ez urrezko domina baina diamantezkoa! Zinez munduko hoberenak gara. Beste nehon, nehoiz, nehork lortu ez duena lortu dugu. Gehiengoa daukagularik, abertzale ez direnei eman diegu botere, izan daitekeen artista hoberenak ederki zizelkatu urrezko platera batetan.

Hirukoa egiten zuten alderdiek, Aralarrekin, 531.000 boto bildu dute. Espainolak urruti dabilta 481.000ekin. 626.000 ukanen genituen D3M jokoan sartu izan balitz, baina nahiago izan du jokotik kanpo gelditu, ezinez eta erran, joko demokratikoa baizik ez zuela onartzen. Hegoaldea Espainiaren meneko ez balitz bezala eta Iparraldea Frantziaren. Haiek finkatu bideetarik pasatu behar dugu on bazaigu ala ez. Zergatik egin hola ez balitz bezala?

D'Hont legea ere hor dago. Badakigu. Baina jo aitzina. Abertzaleok nahiago izan dugu bakoitzak gure alde aurkeztu, hain da handia gure artean ezinjasana, intolerantzia. Gure indarrak lau alderditan zatiturik izanez, galdu dugu. Haiek bi ziren. Hobenduna ez da D'Hont legea, baina gu. Bestela jokatu bagina, D'Hont legea izanagatik, irabaziko genuen.

Bagenekien zer zen jokoan. Ikusten dugu egun oroz zer ematen duen Nafarroan, sozialisten eta nabarristen batasunak. Hizkuntza politika da beren akordioaren



DANI BLANCO

ardatza. Haiek garbi daukate zer nahi duten. Horra zer irabazi dugun. Horretara eraman gaituen aukera, jakinean egin ondoan. Bai! Hori da lortu nahi genuena. Eta lortu dugu! Nafarroan ikusten dugun politika bera jasanen du Euskal Herri osoak.

Ez da dudarik hirukoak euskarari buruz zeraman politikak ezer ez zuela balio. Hemendik hara izanen dugun politika berria askoz ere hobea izanen dela. Euskararen alde askoz ere gehiago eginen duela PPK, nork duda?

Iparralde gaixo honetan AEK, Seaska, irrati eta bestek eskuratzen baitzuten laguntza bat zein baliosa, akabo orain. Sortzera zihoazen hiru ikastolak, ez dira sortuko. Oraingoek ez dute klase berririk irekiko. Zenbait hetsiko hain segur. Baina horrela hobe. Borrokatzeko aitzakiak izanen ditugu. Euskarak leher egiten badu, zer munta du, borrokatzen ahal bagara?

Aipatua izan da jeltzale eta sozialisten akordio bat. Entzun ditut goi mailako abertzale garbi, bero, sutsu bezain suharrak, haserre gorrian: "EAJ ez ahal da sozialistekin joanen!". Lasai jaunak! Ez da horrelakorik gertatuko. Lasai! Guttiengoa daukaten espainolek, PP eta PSEkoek, manatuko dute. Guri esker. Madriek batere Estatu kolperik egin gabe. Zinezko abertzale handien zorionerako. ■

«
Abertzaleok nahiago izan dugu
bakoitzak gure alde aurkeztu,
hain da handia gure artean
ezinjasana, intolerantzia
»

TXANDAN

Edn Zelaieta



...beste alde. Gasteizen ikusitako –eragindako?– bi egoera arrunten berri eman nahi dizuet segidan, XXI. Mendean arlo batzuetan nola eta zertan gabiltzan irudi pare bat har dezagun:

1. Alde Zaharreko Osasun Zentroan nago, esperotan. Adin ertain itxurako gizon bat dut ondoan, urduri eta marmarrean hasieran, are urduriago eta purrustak bost minutu geroago. Azkenean, bikote bat atera da medikuarenetik, magrebterra-edo: "Hau da hau: mairu aluok toki guztietan sartzen ari zaizkigu!"
2. Neskalgunak txikitako auzokide batekin topo

Etiketen...

egin du gurasoen atarian, Judimendin. Honetaz eta hartaz jardun dute biek ti-ta batean: "Lanean-eta, ondo. Zera bakarrik... sudaka gehiegi daudela!"

Bi egoera ekarri ditut hona, baina zerrenda askoz luzeagoa gertatzen da egunero: beltzaranak, errumaniarrak, lesbianak... Badirudi batzuk ez direla oharitzen etiketa ematea oso kirol eraza eta praktikatua dela gurean, gainerakoak etiketatzeak ez zaituela inondik ere besteen –besteon– etiketatetik salbuesten; izan ere, lehen kezatia yonkie gizajo bat zen, besterik ez; eta bigarrena, alajainkoa, ijito zikin bat! ■